

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 64/2016 Foru Dekretua, irailaren 20koa, aldatzen dituen nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako laguntzen oinarri arautzaileak, eta laguntza horietarako deia egiten duena 2016rako

Ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren bidez, onarpena eman zitzaizen nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak emateko oinarriari.

Behin bukatu ondoren 2007-2013ko Landa Garapen Iraunkorreko Plana, Nekazaritza Sailak planteatu zuen ez sartzeari aholkularitza laguntzak 2015-2020ko LGP berrian; hortaz, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak aldatzea proposatzen du 35/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaileen bi artikulua.

Horregatik, egoki irizten zaio aldatzea Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren eranskina (Foru dekretu horren bidez onarpena eman zitzaizen nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriari); baita laguntza lerro horren 2016rako deialdia onartzea ere.

Egindako txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea nekazariak aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 25eko 35/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako laguntzak emateko oinarrien 4. eta 12. artikulua aldatzeari, ebazpen honen I. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Nekazariak aholkularitza zerbitzua erabiltzeko ematen diren laguntzen, lehen aipatutako foru dekretu honetan arautzen direnen, 2016rako deialdia onartzea, honako xehe-tasun hauen arabera:

– Eskerak aurkezteko epea: hilabete, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

– Aurkezteko tokia: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean eta harekin hitzarmena izenpetu duten erregistro osagarrietan, bai eta Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren bulegoetan ere, foru dekretu honen 3. eta 5. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

– Kreditu erreserba: 60.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2016rako gastu aurrekontuko 40.1.01.42.00.481.00.01 "Aholkularitza zerbitzuak erabiltzeko laguntzak" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 16.1.16.105.3930/000).

– Arabako Foru Aldundiaren funtsetatik, eta haren funtsetatik baino ez, emango dira laguntzak.

Hirugarrena. Aurten, laguntza lerro honetarako deialdia egiten da 2015ean egindako aholkularitza zerbitzuetarako, eta 2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egindako gastuak onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastu bezala.

Lauugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta zuzen aplikatzeko eman behar dituen xedapenak eman ditzan.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2016ko irailaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRÁN DE OTALORA

ERANSKINA

NEKAZARIEK AHOALKULARITZA ZERBITZUAK ERABILTZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK ALDATZEA

Lehenengoa. 4.5 artikulua bigarren paragrafoa ezabatzea. Honela idatzita geldituko da 4. artikulua:

4. artikulua. Laguntzen era, zenbatekoa eta ordainketa

4.1. Emandako dirulaguntza ez da itzuli beharko. Dirulaguntza hori, gehienez, aholkularitza zerbitzuagatik urtean fakturatzen eta ordaintzen den kostuaren ehuneko 80 izango da, eta sekula ez da izango segidako hiru urtean 1.500,00 euro baino gehiago aholkularitza zerbitzuko eta ustiategiko; hots, gehienez, urteko 500,00 euro emango dira.

4.2. Dirulaguntza kalkulatzeko orduan oinarrizko sari bat hartuko da kontuan. Sari hori ustiategiko eta hirurteko 1.000,00 euro izango dira edo, bestela, 333,00 euro urteko.

4.3. Oinarrizko sari hori handitu ahal izango da:

4.3.1. Ehuneko 20, ustiategia Natura 2000ko zonetan edo Kontseiluaren maiatzaren 17ko 1257/1999 (EE) Arautegian zehazten diren alde behartsuetan badago.

4.3.2. Ehuneko 30, ustiategiak ustiapeneko nekazaritza edo ingurumen kontratua izenpetu baldin badu Arabako Foru Aldundiarekin edo elikagaien kalitaterako programa batean ari bada.

4.4. Oinarrizko sariak gehi gehigarri osagarriek urtean fakturatutakoaren ehuneko 80 baino gehiago egiten badute, emango den laguntza gehienez ere ehuneko 80 izango da.

4.5. Laguntzak onuradunei ordaindu aurretik honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Aholkularitza zerbitzuen kostua baimendutako erakundeak emandako zor-agiria. Zor-agiri horretan kontzeptu guztiak argi eta garbi adieraziko dira, ez, ordea, aholkularitzarekin zerikusi zuzenik ez daukaten produktu salmenta eta zerbitzuei buruzkorik.

– Faktura banku transferentziaren bidez ordaindu delako frogagarria edo merkataritzako trafikoan balio frogagarria duen agiri baliokidea.

Nolanahi ere, 2.500,00 euroko edo gehiagoko gastuak banku transferentziaren edo bankuko beste tituluren baten bidez frogatu behar dira, urriaren 29ko 7/12 Legearen, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzei eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzkoaren, 7. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

Bigarrena. 12. artikuluko 12.1 idatz zatiaren azkeneko esaldia eta 12.3 idatz zati osoa ezabatzea. Honela idatzita geratuko da artikulua hori:

12. artikulua. Finantzazioa

12.1 Laguntza hauetara bideratutako baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik aterako dira.

12.2. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak finantzatutako dirulaguntzaren zatiaren mugak deialdi bakoitzean finkatuko dira.